

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Udal arau subsidiarioetan babestutako ondasunen udal katalogoa aldatzeko espedientearen ebazpena, Luiaondoko Torre kaleko 13. zenbakiko eraikina katalogotik kanpo uzteko eta aurrigoeran dagoela adierazteko

Aiarako korporazioak, 20121eko uztailaren 22an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Udal katalogoa aldatzeko espedientea ebaztea, Luiaondoko Torre kaleko 13. zenbakiko eraikina –622 zenbakiarekin katalogatuta agertzen da– katalogotik kanpo uzteko. Izan ere, fatxadak eraikuntza bitxia bazuen ere, adreiluz eta egurrez egindako bilbadura eta itxitura galdu egin dira, segurtasun arrazoiengatik kendu baitziren, eta haiek gabe ez du interes kultureko beste elementurik. Bestalde, eraikinean ez da inor bizi, haren segurtasuna urria baita, eta, horrez gain, arriskua sortzen du, bide publikoari begira baitago.

ALHAOn iragarki bat argitaratzea, Luiaondoko Torre kaleko 13. zenbakiko eraikina udal katalogotik kanpo utzi dela jakinarazteko, guztiek horren berri izan dezaten; eta erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Plangintzaren Erregistroari helaraztea, katalogotik kanpo utzi dela jakinarazteko.

Erabaki hau, halaber, Aiarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idatzi duen taldeari jakinaraztea, eraikina katalogotik kanpo utzi dela jakin dezaten.

Bigarrena. Luiaondoko Torre kaleko 13. zenbakiko eraikina aurrigoeran dagoela adieraztea, bat etorritik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201.1 artikuluan eta 199.2 artikuluan xedatutakoarekin; eta jabeari hilabeteko epea ematea, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, pertsonen eta ondasunen kalterik ez egiteko behar diren neurriak har ditzan, eta, udal katalogotik kanpo utzitakoan, eraikina eraisteko proiektua edo eraikina zaharberitzeko proiektua, bietako nahi duena, aurkez dezan. Batak zein besteak teknikari gaitu batek idatzia eta elkargo ofizialak ikus-onetsia izan beharko du.

Halaber, ohartarazten zaio ezen, emandako epean eraispent- edo zaharberitze-proiekturik aurkezten ez badu, eraisteko agindua emango dela, eta hilero gehienez hamar hertsapen-isun jarriko direla, bakoitza 600,00 eurokoa, eta azken hertsapen isunaren ondoriozko borondatezko betearazpenerako epea igarotakoan, udalak ahalmena izango duela nahitaezko betearazpenera jotzeko, jabetzaren ondarearen kontura, eta premiamendu-bidera jo ahal izango duela. Hori guztia dagozkion beste zehapen batzuk gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki hau jabeari jakinaraztea eta ohartaraztea haren aurka udalbatza honi, hilabeteko epean, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokeela, edo, bestela, 2 hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar dezakeela zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2021eko uztailaren 27a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA